

Mendekotasunaren balorazioa (MBB)

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

3 urte baino gehiagoko pertsonen mendekotasun gradua baloratzea.

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua

Nori zuzenduta

3 urtetik gorako pertsonak, mendekotasun iraunkorreko egoeran daudenak, adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik; egoera hori lotuta egongo da autonomia fisikoa, burukoa, intelektuala edo zentzumenekoa gutxiago izateari edo batere autonomiarik ez izateari, aurreko egoerara lehengoratzeko edo egoera hobetzeko arrazoizko aukerarik gabe.

Baldintzak

- Gipuzkoako edozein udalerritan erroldatuta egotea.
- Nazionalitate espainiarra izatea edo Espainian egoitza legala izatea.
- 5 urtez egoitza Espainian eduki izana, eta 5 urte horietatik bi gutxienez eskaera aurkeztu aurreko bi urteak izan beharko (5 urte baino gutxiagoko haurren kasuan, baldintza hau haurraren zaintza eta tutoretza duen pertsonari eskatuko zaio).
- Oro har, urritasun edo ezgaitasunen bat izatea, eskaeraren data baino gutxienez 6 hilabete lehenago diagnostikatua eta tratatua. Urritasun edo ezgaitasun horren ondorioz, beste pertsona baten laguntza behar da eguneroko jardueretarako, hala nola, elikatzeko, garbitzeko, etxe barruan edota kanpoan mugitzeko, osasun zaintzarako,...

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

- [Mendekotasun balorazio eskaera](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Baloratu beharreko pertsonaren NAN edo nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- Mendekotasuna baloratzeko eskaera.
- Oinarrizko Osasun Txostena.
- Departamentuak, gainera, teknikari adituaren txostenak ere eska ditzake, balorazioa egin ahal izateko.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Eskatzailea erroldatuta dagoen Gipuzkoako [udalerriko udal gizarte zerbitzuak](#).

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpena/posta-ziurtagiria

ARAUDIA

[39/2006 Legea, 2006ko abenduaren 14koa](#), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. (BOE 2006/12/15, 299. zbk.). Gaztelaniaz
[174/2011 Errege Dekretua, 2011ko otsailaren 11koa](#), 39/2006 Legean xedatutako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onestekoa. (2011ko otsailaren 11ko 174/11 Errege Dekretua). Gaztelaniaz

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Beharrezkoak diren agiriak eta txostenak badaudela egiaztatu ondoren, hitzordua eskatuta, balorazio teknikariek bisita egingo dute, eskatzailearen etxean bertan, elkarrizketa egin eta balorazio galdetegia betetzeko.

Baloraziotik ateratzen den graduaren arabera, baloratuako pertsonak Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroan jasotako hainbat zerbitzu eta prestazio jasotzeko eskubidea izango du, zerbitzu eta prestazio bakoitzerako berariaz ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Informazio gehigarria

Baremoak hiru mendekotasun egoera xedatzen ditu: moderatua (I. gradua), larria (II. gradua) eta mendekotasun handia (III. gradua).
Balorazioaren emaitza behin betikoa edo behin-behinekoa izan daiteke.
Eskabidea interesdunak berak edo bere ordezkariak tramitatu dezake.